

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko martxoaren 30a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Lizarra Mendizaleen Elkartearen sortu zeneko 50. urteurrena ospatzen ari da aurten

Bortziriak • Ezinduentzako lantegi eta erresidentzia berria

«Arriskua saihesteko era bakarra: urtegia ez betetzea»



• MIKEL SAIZ

Itoizko Koordinakundeak deituta, bihar, 18:00etan, manifestazioa abiatuko da autobus geltokitik, urtegia «segurtasun arrazoiengatik gelditzeko» eskatzeko. Urtegiari aurre egiteko arrazoi gehiago badira, baina orain segurtasunak du garrantzia. Halaxe esplikatu du Patxi Gorraiz Koordinakundeko bozeramaileak. Bizkor ibili beharko dute, Ebroko Ur Konfederaziokoek laster hasi nahi baitituzte betetze probak.

Iruñea ●

Nerabe idazleei deia

Gazteentzako lehiaketaren elebitasuna arriskuan da euskaraz jasotzen diren lan eskasiarengatik

Iruñeko gazteentzako lehiaketara deitu du Iruñeko Udalak narrazio labur eta olerki sailetan, gaztelaniaz zein euskaraz idatziriko testuetarako. Euskaraz, baina, lan guti jasotzen dira eta lehiaketa arriskuan da.

I RUÑEKO UDALAK ZORTZIGARRIN aldiz antolatu du 14 eta 18 urte bitarteko Iruñeko gazteei zuzenduriko Literatur Lehiaketa narrazio labur eta olerki sailetan. Iruñean sortutako gazteek parte hartu ahal izanen dute lehiaketan, eta baita jaiotzez Iruñekoak ez izan arren Iruñean bizi direnek edo bertako ikastetxeren batean estudiatzeko ari direnek.

Lanak gaztelaniaz zein euskaraz bidaltzen ahal dira. Iruñeko Udaleko Euskara Sailetik adierazi dutenez, lehiaketak gorabehera handiak ditu parte-hartzeari dagokionez, eta iaz lau lan besterik ez ziren aurkeztu euskaraz; gaztelaniaz, berriz, 150.

Euskarak Iruñeko Udalean bizi duen egoera murriztailea ikusita, akaso parte-hartze ttiki horrek lehiaketaren elebitasu-

na arriskuan jar dezake. Horregatik, 14 eta 18 urte bitarteko idazle berriei (eta hauen irakasleei) dei berezia egin nahi izan diete Euskara Sailekoek.

Idazlanak maiatzaren 5eko ordu biak baino lehen aurkeztu behar dira Gazteentzako Argibide Bulegoan, Gazteriaren Etxean (Zangoza kalea, 30). Narrazio laburraren sailean, gutienez hiru eta gehienez hamar orrialde izanen dituzte lanek; olerkikoan, berriz, gutienez poema bat aurkeztu behar da, 14 ber-



Udalaren gazteentzako literatura lehiaketan euskaraz parte hartzeko deia egin dute. ● GARI GARAIALDE

tso lerrokoa gutxienez eta 40koa gehienez.

Udalak hiru sari emanen ditu sail eta hizkuntza bakoitzean, 50.000, 25.000 eta

15.000 pezetakoak, eta hauek gain 10.000 pezetako bi akzesit eta oroigarriak.

→ Asier Azpilikueta

Erroibar-Aezkoa ●

Urrobi argazki lehiaketa

ERROIBARKO 11 KONTZEJUAK eta Aezkoako 9 udalak biltzen dituen Urrobi partzuego eratu berriak argazki lehiaketa abiatu du, «bere txoko ederrak ezagutzera emateko». Lehiaketarako argazkiek eskualdeko «natura, ondarea eta ohiturak» bildu beharko dituzte.

Argazkiak Erroibarko udal txean edo Aezkoako Juntetxean entrega daitezke, apirilaren 9a arte. Apirilaren 21ean sariak eman arte, argazkien erakusketa Arriben izanen da. Sarien ostean erakusketa Erroibarko udal txera pasatuko da.

Hiru argazki onenen artean 50.000, 25.000 eta 15.000 pezetako sariak banatuko dira, eta argazki digital onenak 10.000 pezeta eskuratuko ditu. Paperezko argazkiek 18 x 24ko tamaina izanen dute, eta argazki digitalak JPEG, TIFF edo PDS formatuetan izanen dira.

Iruñea ●

Eskulangintza feria Amaiurren

AMAIUR IKASTOLAN EUSKARAREN aste kulturala egiten ari dira astelehenean. Astearekin bukatzeko, gaur eskulangileen eta produktuen II. azoka eginen dute. Zur lanak, buzingintza, lore idortuak, harrigintza eta harrikartoi lanak ikusteko aukera izanen da Amaiurren, baita taloak, ezta, gazta, ogia edo txerriak dastatzeko aukera ere. Gainera, hainbat lantegitan parte hartzeko parada izanen dute Iturramako ikastolara joandakoek.

Orba ● Elkarteak sortu dute ibarraren garapenerako

IRAGAN LARUNBATEAN KATALAINGO ermitan Orba ibarreko makina bat bizilagun elkartu zen Orbako Garapenerako Elkartearen aurkezpen ekitaldian. Ibarren garapen integrala bultzatu nahi du elkarte berriak, baita azpiegitura turistikoa sortu ere, eskualdea biziberritze-

ko, enplegua sortzeko eta biztanleria finkatzeko.

Elkarte berriari sartu dira Garinoain, Puiu, Leotz eta Orisoaingo udalak, Olleta, Iratxeta eta Artaraingo kontzejuak, zenbait enpresa, hainbat ostalaritza komertzio eta bizilagun bakan batzuk. Orain sektorekako

mahaiak antolatu beharko dituzte hainbat esparrutako proiektuak aurrera eramateko: turismoa, ondarearen berreskuratzea, abeltzaintza eta nekazaritza, ohiturak. Elkartearen asmoa da turismo ekologikoa bultzatzea. Horretarako, Gerindako parke eolikora edo Olleta-

ko irin errotara bisitak antolatu nahi dituzte.

Elkarteko buruek erran dutenez, «Orbako nortasuna indartu nahi dugu, baita ibarra kalitatezko turismo leku bilakatu ere».

→ Daniel Urrutia

mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



ESKAILERA ospatzen dutenek zehatz-mehatz dakite zenbat falta den. Besteok ere jabetuko gara; ez zaitu, ez, oharkabean pasatuko. Halako batean, ohar-tuko gara tonbola jarria dutela, eta, orduan, ate bat begiztatuko dugu, eta, atea irekitakoan, kolorez betetako erresuma zabal batean sartuko gara ziztuka. Txio-txio over the rainbow. Txarangaren metalak agur egiten dizu. Lagun asko biltzen da txaranga, baina dantzan ari denak ez ditu gogoko ikusleak; ez da berekoa eta nahiago ditu segizio luze eta alaiak. Horregatik, deiak egiten zaizkio munduari: «goazen denok plazara». Eta lelorik bai lelo munduak erantzun egiten du. Urrun horietatik etortzen dira gurera, saldoka eta saltoka.

Hemen beti pentsatu izan dugu gure jaiek ez dutela pu-

Attaque 77

blizitate handirik behar, behin etortzen den kanpotarrak nahikoa famatzen dituela bestela ere. Baina ez dago fidatzerik. Begira bestela egunotan zabalduko berria. Argentinatik dator notizia, rock talde bat badela jentzioz bizia. Lau lagun dira eta 77ko uztako ardoa dute gogoko. Jakina da urte hartako ardoa laster ozpindu zela, eta hippien loreak izorratzeko erabili zutela gehienbat.

Minduta dagoenak horrelakoak egiten ditu, eta, oraingoan, zeri eta entzierroari tokatu behar. Adarrak eta adarkadak, berriz ere. Zorrotzak izan beharrean daude. Attaquek istorio bat kontatu nahi izan du, eta San Fermín deitu dio: «mirá, un tipo se cayó / mirá, el toro lo alcanzó / después de todo no está tan mal / le clava los cuernos en la espina dorsal...».

Bota dute. Puzkar bat paradisuan. Deus gutxi, halere, txarangakoei aurre egiteko. El Bolo aldizkarikoek, informatzeaz gain (maiatzaren 23an hasiko du Attaquek Espainiako itzulua), erronka bota diete: «¿Tendrán cojones de venir a Pamplona?».

Ez dakit, ba. Managerraren trebezia probatzeko aukera ezin hobea dute, Molotov izeneko su hark hain ongi baliatu zuena. Zer informazio jasotzen duten aurrera edo atzera egiten dute, eta, horrelakoetan, zaila da erabakitzea zer den aurrera eta zer atzera egitea.

Altsasun gera litezke, hango muino batean Osbornek paratu zuenak ere oso handiak baititu zerak. Iruñera inguratzea deliberatzen badute, gogoan izan beharko dute hemen txaranga berak ezartzen dituela arauak eta segurtasun neurriak. Jakina, bertara etorri gero etekina ere handiagoa.

Pop Tops, gogoan zaituztegu.

Bortzirriak • Ezinduentsako lantegia eta erresidentzia



Artxiboko argazkian bi ezindu gizarkeitzako lantegi batean lanean Ricardo Ansoategirekin batera, Ansoategi gizarkeitzako diputatuak horientzako zentrua inauguratu zuenean. • VERONICA MUÑOZ

Aspacek eta Gizarte Zerbitzuek adimenez urriak direnentzat bi egitasmo jarriko dituzte abian

Eskualdeko ezinduentsako bi egitasmo jarriko dira abian laster batean Bortzirietan, bata bertzearen osagarri: erresidentzia eta lantegia. Lanak oraindik hasteke dauden arren, badirudi laster bi egitasmo horiek gauzatu ahal izanen direla, Beran lehenbizikoa eta Lesakan bertzea.

ORAIN 24 URTE SORTU ZEN Beran burmuineko elbarrientzako Uxane zentroa, Aspace elkartearen baitan. Gaur egun 18 lagun ari dira bertan zenbait lan ttiki egiten. Bertakoek aspaldiko egitasmoa dute ezinduentsako erresidentzia egitea. Badirudi orain egin ahal izanen dela.

Lekua ere aukeratua dute: Berako mediku kontsultategi gaineko egoitza. Bi solairu daude libre bertan, eta 16 lagunentzat egokitzeko asmoa agertu dute. Lanek 33 milioi pezetako aurrekontua izanen lukete, eta Nafarroako Ongizate Sailak aurrekontuaren erdia bere gain hartuko luke. Bertze erdia Bortzirietako udalek paratuko lukete. Berako Udala horren erdia ordaintzeko prest agertu da, eta bertze erdia, biztanle kopuruaren arabera, bertze lau udalek paratu beharko lukete. Zentroaren kudeaketaz Aspace arduratuko litzateke, eta egoitzaren mantenimenduaz eta langile-

tze erdia Bortzirietako udalek paratuko lukete. Berako Udala horren erdia ordaintzeko prest agertu da, eta bertze erdia, biztanle kopuruaren arabera, bertze lau udalek paratu beharko lukete. Zentroaren kudeaketaz Aspace arduratuko litzateke, eta egoitzaren mantenimenduaz eta langile-

herri aldizkariak
Edurne Elizondo

Zaborra bereizteko kanpaina

Zaborra bereizi eta bakoitza bere ontzira botatzeko kanpaina jarriko dute abian Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan eta gai horri eutsi dio **Ttipi-ttapa** aldizkariak bere azken zenbakian: «Kristalak, pilak edo papera eta kartoia eguneroko zabor organikotik bereizteko zaborrontziak jarri dira azkeneko urteotan ia inguru osoan. Orain bertze pauso bat emanen da Bortzirietan, Malerrekan eta Bortzirietan: papera eta kartoia alde batetik bilduko dira eta brik, plastiko edo metalezko enbaseak bertze aldetik,

bakoitza bere zaborrontzian bereizi ondotik. Gainera, tamaina handiko hondakinak etxez etxe bilduko ditu Iruñeko Emausko Traperoak erakundeak. Zerbitzu horren bitartez, bolumen handiko objektu guztiak bilduko dira, hondakin organikoak eta hondakin industrialak izan ezik, eta betiere objektuak maneiatzeko bitarteko mekanikorik behar ez denean eta momentuan eramateko prest baldin badaude».

«Tamaina handiko hondakinen biltzea da, hain zuzen, hemendik aitzinera zabo-

rren bilketan aldaketa handiena izanen duena. Orain arte hondakin horiek zaborrontzien ondoan utzi eta hilean behin biltzen zituzten. Orain ere hilean behin bilduko dituzte, baina etxetik bertatik eramanen dituzte, horretarako aitzinetik telefonoz deituta. «Objektuak eta materialak aprobetxatu eta birziklatzeko metodarik onena da, objektuak ez direlako nahastan, zikintzen edo hondatzen», azaldu du Emausko Trapero etako kide batek, **Ttipi-ttapa**-koen artikuluan.

ez Nafarroako Gobernua. Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, berriz, Enplegurako Zentro Berezia sortu nahi du. Lesakako Otsango industrialdean Mankomunitateak papera biltzeko erabili izan duen pabilioian kokatuko litzateke. Jon Larretxea Mankomunitateko langilearen arabera, «izaera produktiboa izanen du, eta, bertze edozein lekutan bezala, soldata eta gizarte segurantzaren dute hor kontraturikoek». Pabilioia egokitzeko proiektua prestatzen dihardute, eta urte amaiera alderako martxan nahi lukete Mankomunitateko kideek. Aspacerekin elkarlanean dihardute honetan Mankomunitateko kideek.

20 pertsonentzako lana egin ahal izanen litzateke bertan, eta ezintasun ziurtagiria beharko da lan egiteko. Gaur egun, Bortzirietan, 18 lagun omen daude egoera horretan, erdiak baino gehiagok 30 eta 40 urte artekoak.

Enplegurako Zentro Bereziak, gainera, lanpostua eskaintzeaz gain, gisa guztietako laguntza eskainiko luke: gida-baimena lortzeko ahalmena dutenei lagundu, pisua erosteko laguntzak bideratu, bizi-proiektu bat aitzinera ateratzeko laguntza orokorra eskaini...

Batak zein bertzeak duten garrantzia azpimarratu du Isabel Pardo Uxane zentroko arduradunak. «Enplegu zentroan lanean ari diren anitz erresidentzian bizitzen jarriko direla iruditzen zait». Erresidentziaren inguruan, «premia-premia kontua» dela gaineratu du Pardok.

→ Jon Abril



Xabier Larraburu

2.000 karaktere

Gaur, zutabe honetarako espresuki egina, zortzi kapitulu osatutako eleberritxo bat nuen idatzia, baina Nafarkariako buruak luzeegia dela esan dit, muga (bertze esan behar al da?) bi mila karakteretan dudala (espazioak barne) eta hortik aurrera debekaturik dudala koma bat bera eranstea ere (demasa), bi mila karaktere haratago dagoena galarazita dagoela niretzat eta berdin zaiola hesi horretatik haratago ikusten ditudan gauza zoragarriak eta berari bost lurralde horretan dauden urrezko gaztelu zein misterioz betetako gertaerak. Beraz, eleberririk gabe utzi zaituzte. Pena da, zeren eleberria oso ona zen. Batez ere bigarren eta bosgarren arteko kapituluak. Eta bukaera? Zer esan dezaket bukaera gloriosa horri buruz? Bukaera zoratzeko modukoa da. Bukaeran protagonista aurreko kapituluetan egiaztat hartu duena faltsua dela konturatzen da, hara!, eta bere burutazio eta gogo guztiak kolokan gelditzen dira, bere nortasun guztiak trapezistaren zorabioa zirudien, baina azkenean, ta!, maisuki idatzitako bi lerroetan, protagonistaren zalantzen zergatia sakonki eta modu argi batean ulertzen dugu. Demasa. Oso polita. Oso ona. Baina, aizue, maisu lan hori, nonbait, luzeeeeegia dela irizten dio nire nagusiak eta bi mila karakteretan mugitu behar naizela errepikatzen dit (astero!) zoologikoan hartzei ezartzen zaizkien bi metro eskas horien antzera. Eta nik esaten diot ni bezalako hartzek oihan zabalenetan bizi behar dutela, muga baldarrak ezarriko dituzten errepiderik gabe, eta haize errotrarik gabe, eta egunero berrogei kilometro egiten dutela, ni-bezalako hartzek!, patxaran batzuk jateko, eta zoologikoan, ordea, bi metro besterik ezin dutela egin eta ea horrek ez dion zer edo zer gogora ekartzen eta ea ez al den ohartzan Nafarkaria zoologiko bat bilakatzan ari dela, eta berak orduan, asperen batean, esaten dit: «Bi mila karaktere». Bale. Ongi da. Bi mila karaktere. Ulertu dut, e? Ulertu dut. Ongi da. Dena den, bukatzeko gauza bat esango dizut... Zer diozu? Dagoeneko pasatu naizela? Moztuko duzula? Et!, et!, et!, niri inork ez dit zutabe bat mozt

Patxi Gorraiz

ITOIZKO KOORDINAKUNDEAREN BOZERAMALEA

«Arriskua saihesteko modu baarra urtegia ez betetzea da»



Itoizko Koordinakundeak deituta, bihar manifestazioa egingen dute, urtegia «segurtasun arrazoiengatik gelditzeko» eskatzeko. Patxi Gorraiz, 39 urteko itoiztarra, hamabost bat urte daramatza Koordinakundearen buru-belarri, Itoitz eta ondoko lurak ez itotzearen alde. Duela gutxi auzia galduta zutela zirudien, baina segurtasun kontuek afera pil-pilean jarri dute.

1997ko uztailean Espainiako Auzitegi Gorenak Itoizko urtegiaren proiektua baliogabetu zuen, urtegiak natur erreserben babes bandeia egiten zien kalteengatik. Gero, Nafarroako Parlamentuak natur-guneen lege berria atera zuen, babes banda horiek kentzeko. Itoizko Koordinakundeak hala eskatuta, Auzitegi Konstituzionalak lege berria aztertu eta, urtegiaren kontrakoentzako zorigaitzoko epai batean, 2000ko martxoan lege berria baliotatu zuen.

Arduragabe ari dira. Gainera, orain, betetze probak egin nahi dituzte. Baina horretarako, legeak aginduta, larrialdi plana behar du urtegiak. Eta plan hori egiteko dute oraindik. Itoizko auzian arrisku katastrofikoaren gaia oso berandu atera dugu, bai. Baina alarma argia garaiz piztu dugu. Konponbidea dago oraindik. Agintari politikoen eskuetan dago erabaki egokiak hartzea hondamendia ekiditeko. Eta Koordinakundearen lana da jendeari jakinaraztea Itoitz betez gero hondamendiak gerta daitezkeela.

■ Horregatik gelditu behar da urtegia? Segurtasun arrazoiengatik?

Orain, argi eta garbi, Itoizko urtegia segurtasun arrazoiengatik gelditu behar da. Urtegiari zenbait ikuspegitik egin zaio aurre. Baina, hori alde batera utzita, orain erran behar da urtegia betez gero arriskuak sortuko direla eta horren ondorioak milaka lagun hiltzea eta hainbat bizitoki suntsitzea izan daitezkeela. Hondamendiak ez du bereizten urtegiaren aldekoen edo kontrakoaren artean. Urtegiaren aurrean norberak duen jarreraz landara, manifestaziora joan behar da egon den obskurtismoa, manipulazioa eta arduragabekeria salatzen.

■ Dena den, beste argudioak oraindik ere baliagarriak dira.

■ Baten batek buruargi deitu zaituzte arrisku katastrofikoak iragartzeagatik.

Txosten hauek egin dituztenen kurrikuluma ezin da zalantzan jarri. Arturo Rebollok berrogei urte baino gehiago eman ditu ingeniari munduan eta jasoa du Ingeniariaren Elkargoak emandako urrezko domina. Rebolloren txostena iragan azaroan aurkeztu genuen eta oraindik ere inork ez du argudio teknikoekin erantzun. Are gehiago, Ingurumen ministerioko ingeniariak erran dute ezin ziurta daitezkeela urtegiaren inguruko mendi lepoaren litologia eta geologia seguruak diren. Hortaz, benetako arriskuez ari gara. Txostenak errealak dira, ez dira gehiegizko-

ak. Baina, beti bezala, arrazoi ezaren aurrean, mezularia hiltzen saiatu dira.

■ Igarle ere izan zarete. Zuen kartel zahar bat ari naiz irakurtzen: «(Itoizko ura) lehen ureztatze sailerako zen, orain Iruñerako, gero zertarako?». Orainsu jakin dugu Itoitz garrantzitsua dela Espainiako Plan Hidrologikoan. Zer iritzi duzue horren inguruan?

Koordinakundeak betidanik salatu ditu Itoitzen gibelean zeuden ezkutuko interesak. Orain ari dira gure tesiak baieztatzen. Beti erran dugu Itoizko urtegia eraikitzearen gibelean dagoela Ebro ibaiaren ura eramateko asmoa. Plan hidrologikoa Ebroren ur eramatean oinarritzen da. Ura eramateko Ebrok gutiengo ur emari konstantea behar du eta, hori erregulatzeko, urtegi handiak behar dituzte Ebroren ezkerreko ibai isurkideetan. Irati da horietako ibai bat. Hortaz, ura eramateko funtsezko piezak dira Itoizko urtegia, Esako urtegia handitzea eta Huescako Biscarrues eta Santaliestra urtegiak. Itoitz behar-beharrezkoa dute, nahiz eta plan horretan agertzen ez den. Alde horretatik, erabat kontraesankorra da planaren kontra agertzea eta Itoizko urtegia egitearen alde izatea.

→ Asier Azpilikueta

«Itoiztik ateratzeko aukera ez dugu oraino aztertu»

Itoizko Koordinakundeak bozeramaile gisa hitz egiten duela, Patxi Gorraiz luze eta zabal esplikatu du beharrezkoa. Itoiztar gisa erantzun behar dituenak, ordea, erantzun laburak dira, ez baitu gustuko bere buruaz hitz egitea. Laburak, baina zuzenak eta tinkoak.

■ Nolako zen urtegiak gabeko Itoitz herria?

Suntsipena hasi baino lehen, Itoitz leku lasaia zen, herri txikia. Orduan, orain bezala, hamahiru bat lagun bizi ginen Itoitzen.

■ Lanak hasi zireneko garaia gogoan duzu?

Lanen hasierab, ezina sentitzen nuen. Lanak has zitezkeela argi genuen, baina oraindik ere lan handia egiteko zegoela ikusten genuen. Orduz geroztik Itoizko urtegia gauzatzearren kontra ari gara lanean, eta oraingoz lortu egin dugu.

■ Nola igaro ditu Patxi Gorraizek borroka urte hauek guziak?

Kontu honi erabateko arduraldia eskainiz. Itoizko auzian irabazi edo galdu egingen dugu. Ez dago erdibiderik. Hortaz, irabazi nahi baduzu, zure indar guziak horretan jarri behar dituzu. Bai, baina ez; ez, baina bai... horrek ez du balio. Jarrera argia behar da.

■ Bere eta familiaren iraupenagatik borrokatu da Patxi Gorraiz?

Urtegiari aurre egiteko guk ez dugu inoiz gure iraupenaren arrazoi erabili. Eta esandako hori argi gertatzea nahi dugu.



«Itoizko auzian arrisku katastrofikoaren gaia oso berandu atera dugu, bai. Baina alarma argia garaiz piztu dugu. Konponbidea dago oraindik. Agintari politikoen eskuetan dago orain erabaki egokiak hartzea hondamendia ekiditeko»

«Urtegiari zenbait ikuspegitatik egin zaio aurre. Hori alde batera utzita, orain erran behar da urtegia betetzeak arriskuak dituela eta horren ondorioak milaka lagun hiltzea eta hainbat bizitoki suntsitzea izan daitezkeela. Eta hondamendiak ez du bereizten urtegiaren aldekoen edo kontrakoaren artean».



■ Baina arrazoi hori ere zilegi da.

Bai, zilegi izan daiteke, baina guk ez dugu inoiz erabili. Hori balitz arrazoi bakarra, ez genuke bestelako argudioerik erabili. Badira arrazoi gehiago: ingurumenari egiten zaion kaltea, lan handi honen justifikaziorik eza, segurtasunaren kontua, lege afera... Argudio hauek guziak eramanen gaituzte Itoitz eta Irati ibarra salbatzera.

■ Itoizko eliza igandero betetzen dute herritarrek?

Bai, bai. Itoitzen bizitzak normal segitzen du, lanek eragiten dituzten oztipoez landara. Itoizko bizilagunek argi dute beren egitekoa dela bizitza modu normalean egiten segitzea. Izan ere, guk beti sinetsi dugu urtegia ez dutela beteko.

■ Herritik ateratzeko agindua jaso duzue?

Ez, Espainiako Entzutegiak debekatua du bizilagunen lekualdatzea. Nafarroako Gobernuak desjabetzen ardura hartu eta dena desjabetu du, etxeak izan ezik, pertsonen lekualdatzea debekatua duelako.

■ Itoiztik ez zaretela aterako uste duzue?

Bai, noski.

■ Atera behar izanez gero, nola?

Aukera hori ez dugu oraino aztertu.

■ Zer-nolako bukaera alai izan dezake honek guziak?

Bukaera bata edo bestea izan, argi dago bizilagunei kostu handia eragin diela honek. Kostu horrek ez digu inork kenduko. Noski, gure bukaerarik onena da urtegia ez betetzea. Eta gu bakean utzea; ez dugu besterik nahi, urtegiaren auzia hasi aurretik bizi ginen bezala bizitzeko, mendialdeko herri txiki batean lasai bizitzeko.

■ Zenbat gehiago luzatuko da Itoizko auzia?

Ez dakit. Denbora asko pasa da, eta ez dakit zenbat gehiago beharko den. Guk, noski, lehenbailehen bukatzea nahi dugu, urtegia bete gabe. Betezte probak ere ez egiteko lan egingen dugu. Itoizko auziaren bukaera urik gabe ikusten dugu, argi eta garbi.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Erdaraz izkiriatu zuten idazle nafar bi (II): Lepazar

Iruñeko kazeta zaharretan murgildu direnak sobera dakite euskara ez dela guztiz arrotza harako paperetan, eta, gutxi bada ere, eskas eta lakar, ezin da esan ageri ez zenik, geure hizkuntzak pairatzen zuen egoera soziolinguistiko kezagarria kontuan harturik, ohi baino baikorrago izateko arrazoia dena.



Pasa den gizaldiaren lehenbiziko hiru hamarurretan Iruñeko kazetetan euskaraz idatzi zutenen artean *El Pensamiento Navarro* egunkari karlistan 1918-19 denbora tartean ateratako *Euskal idazkuntzak* sailaren arduraduna izan zen Lepazar aipatu ohi da. Anartean oharkabean igaro zaigu Lepazar haren nortasuna, haatik, eta hemerrotekan ordu zenbait ematen badira *Euskal idazkuntzak* horiek leitzuz, aisa atzematen da nor izan zen bere grazia ezkutatzeko Lindus ondoko Lepazar Aurizko topónimo aukeratu zuena.

Agustin Irigarai Apat Aurizko Porkaxonekoan jaio zen, 1873ko ekainaren 15ean. Porkaxoneko irigaraitarrak XVII. mendean Auritzera ezkonturiko garatzar baten ondorengoa izan zen. Porkaxonean euskara nahikoa bipilki mantendu zen XX. mende hasieratan ere. Agustinen aita zen Manuel Irigarai Etxebarren. Larrekoren aita zen Ramon herriko maisua bezalaxe, Euskara Elkarteko kidea zen, eta izen bereko aldizkariaren harpideduna bazen, bada gure Agustin gazte zela aukera ederra izan zuen orduko giro euskaltzaleaz jabetzeko. Agustinen arreba zen Felisa, 1869ko maiatzaren 20an jaioa zena, lehengusu tipia zuten Larreko idazle medikuarekin ezkondu zen 1898an, medikua Iruritar hurbildu baino zenbait egun lehentxeago. Bizitokia berria Iruritako Palotegian izanki, Baztango kronikalari jardun zuen Larrekok *La Tradición Navarra* egunkari integristarantzako, erdaraz gutxiz gehien, baina euskaraz zertxobait ere, 1910-11 urte bietan.

Orduetik aitzina, eta Martinzurgeneneko auriztarrek zerabilen euskararen kalitatea zela eta gogoia goibeldu eta bisaia tristatzen zizkioten aurreiritzi guztiak behin gaudituta, egun guztiok eza-gutzen dugun euskal idazle handi bilakatu zitzai-gun Larrekoa, besteak

beste *Gerla urte gezur urte* egunkari zoragarriaren egilea hain zuzen ere. Ez zen Agustin Irigarairekin era berean gertatu. Gorago esan bezala, Lepazar ezizenaren azpian Agustin Irigarai *El Pensamiento Navarro*-n 1918ko ekainaren 13tik 1919ko abendura bitartean atera zen *Euskal idazkuntzak* sailaren arduraduna baita egilerik maratzena ere bagenuen, bada, nahiz *Euskal idazkuntzak* kolaboratzaile aunitzen emaitza izan zela non edo non esan den, egia esatera, funtsean bi kolaboratzaileen lana izan zen, Irigaraitarrak biak, eta Agustinen ardura bereziki, Lepazarrekin batera Joannes Artzaia edota Adi ezizenak zerabiltzan arren. *El Pensamiento Navarro*-n ez zuen, berriz, euskarazko kolaborazio huraxek soilik egin, hango erredakzioan kazetari baitziharduen, eta horren kariaz, naski, bereziki erdaraz idatzi zuen Agustin Irigarai, eguneroko prentsa idatzian zein karrikara eman zituen liburu



parean. Berriz ere, euskal idazlea galtzearekin batera, Agustinek berak ere historian hagitzez ere ezagunago izateko aukera paregabea galdu zuen. Euskarak eskertuko zion bada, eroso

eta zauli baitzerabilen etxeko ama hizkuntza. Moldetatik elkiaz zuten lehenbiziko liburua *Estampas del Pirineo* izan zen, 1933an, gauza kurios dena, azalean hiru edizio leku ematen dituen, Madril, Donostia eta Iruñea, geure kasuan, argitaletxearena Bescansa etxeari zegokiona. Sarrera labur baten ostean, hogeita bi kapitulutuan Aurizko bizitza dakarkigu, baita Nafarroako armariatzekin banaketa geografikoaz burutapen zenbait. Euskararen agerpena ere liburuan bada, eskasa oso baina, esaldi gutxi batzuk eta bertsoen bat. Irigariren bigarren liburua goiburua bitxia darama, *De buzo a general: odisea de un navarro*, Iruñeko Bescansa etxeak egina hori ere, 1940an. Hilario Yabenek prologatu zion honetan lurren itsasontzi batean langilea izatetik iraultza mexikarren ofiziala izatera iritsi zen pertsonaia baten zinak eta minak kontatu zizkigun, ausaz, kontu autobiografikoak daitezkeenak.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Iruñean 1.100 taberna inguru daude. • MIKEL SAIZ

Soziedad Alkoholika

ETXETIK GERTU DAGOEN TABERNA eguerdiko pintxoak jateko, bazkalosteko kafea hartzeko edo lagunekin egunak utzita-koaz hitz egiteko topaleku paregabea izaten da. Nafarroako Ostalarien Elkarteko idazkari Jorge Saulearen esanetan, «tabernen %80 tankera honetakoak dira Iruñean. Tradizionalak. Auzokoak. Familiartekoak. Betiko bezeroak dituztenak. Goiz zabaldu eta goiz ixten dutenak».

Asteburuetan, berriz, egoera oso bestelakoa da gure inguruan. Gaugiroko taberne ostegunetik igandera zabalitzen dituzte ateak. «Ohiturak aldatzen ari dira. Jendea gauerdian irtetzen da, baina taberna ixteko ordutegiak bere horretan jarraitzen du». Beraz, bi ordu besterik ez dago gauari aurre egiteko. Baldar-baldar dantzatzeko. Garagardoarekin itsutzeko. Elkarrekin lo egitera joateko proposamenak aurrera egiteko. Dezibelio gehiegizkoekin gortzeko.

Iruñean 1.100 taberna inguru ditugu. Jada Alde Zahar osoa eta Iturrana eta Donibane alde batzuk beteta daude eta, legearen arabera, ezin da gehiago zabaldu bertan. «Nahiz eta taberna berri gutxi ireki, jabetza etengabe aldatzen da sektore honetan», dio ostalarien eledunak.

Horren azpian tabernak eragiten duen nekea dago. Emaztearekin harek dituen arazoak entzun beharra gaur eta bihar ere. Mozkortzen denean beste bezeroak bakean

uzteko esan berriz ere betikoari. Gazte koadrila horri kanutoak ez erretzeko agindua errepikatzea. «Barraren bi aldean arteko harremana egunerokoa da, lotura estua dago, baina, era berean, oso azalekioa ere. Ez da erraza ostalariontzat beti zerbitzu bikaina eta tratu paregabea eskaintzea. Lan gogorra da bertan».

Dena den, nahiz eta tabakoa eta alkohola saldu bertan, Saulea jaunaren ustez, gizarte osasuntsu baten erakusleak dira tabernak. «Gizakien arteko harremanak sendotzeko aukera ematen dute. Iparraldeko Europan ez dago horrelako topagunerik. Ez dago bizirik kalean».

Duela 25 urteko guatekeen antzera, festak etxean antolatzen geroz eta ohitura gehiago dagoela dio, berriz, Teletranka zerbitzuko kide Ramon Ciak. «Telefonoz eskaera jaso ondoren, etxetara eramaten ditugu edariak». Tabernak taberna ibiltzea baino merkeagoa eta erosoago da. Bezero gehienak kanpotik etorritako unibertsitarioak dira.

Beti ere alkohola neurrian eta sabela beterik dagoela hartzen bada, hobe. Hala egiten dute, hain justu, nerabeek. Matutano patatak, gantxitoak eta pipak bapo afaldu ondoren, supermerkatuan erositako coca-cola, ginebra eta whisky edaten dute ase arte. Parkean eseri eta hantxe egoten dira barruak berotzen hozte ez akabatzen.

Ziria


• Motxorrosolo •

Apobidea

ARDURAK HARTZEKO GARAIA IRAGANIK, ERANTZUKIZUNAK ESKATZEKO TENOREA HELDU DA. Honetan ere, norabide baka-rrerako galdea. Sekulan apobidetik barna abiatuko ez diren horiek Madrilan laguntza izanen dute. Egoera trenkatzen iaioak baitira.

Lizarra • Mende erdia mendiairen gailurrean

Lizarrako Mendizaleen Elkarte bere sorreraren 50. urteurrena ospatzen ari da aurten



Egitarau zabala, oparoa eta berezia prestatu du Lizarrako Mendizaleen Elkarteak bere 50. urteurrena ospatzeko. Mendi irteerak, hitzaldiak, diaporamak, ikastaroak eta erakusketak dira, bertzeak bertze, datozen hilabeteotarako antolatu dituzten ekitaldiak.

1951. urteko martxoaren 30ean sortu zen Lizarrako Mendizaleen Elkarte. Ega ibaiak zeharkatzen duen hirian mendiarekiko zaletasun izugarria zegoen, eta hiriko gazteek elkarte sortzea erabaki zuten. Luis Gomez de Segura sortzaileetako batek gogoan ditu hastapenak: «Estellerriko mendiak igotzen genituen, batez ere; Jurramendi, Monjardin, Belastegi, Iturgoien, Etxabarri, Lokiz, Urbasa, Ioar... baina bertze lurraldeetako gailurretara ere joaten ginen urtean behin. Aurreneko urtean Gorbeira joan ginen, bertako gurutzearen 50. urteurrena ospatzera».

Dudarik gabe, 50 urteotan gauzak nabari aldatu dira; esaterako, 1951. urtean bazkideen kuota 35 pezetakoa zen, eta irteera baten gastua 25 pezeta ingurukoa izaten zen. Elkartearen kide zaharretako batek irribarre malenkoniatsu batekin oroi-

tzen ditu garai horiek: «Larraizar mendira joateko autobusez joaten ginen Abartzuzara; bidaia 10 pezeta kostatzen zen. Mendi baten magalera hurbiltzeko denetariko garraiobideak erabiltzen genituen: bizikletak, autobusak, trenak... 1970. urtean Ergako Trinitatera abiatu ginen; Lizarratik Altsasura autobusez (28 pezeta), Altsasutik Irurtzuna trenez (15 pezeta), bertatik gailurrera oinez, gero Etxarrira taxiz (55 pezeta) eta berriro ere Lizarrara autobusez». Oroitzapenak alaiak eta ugariak dira. «Moncayo mendira hurbiltzeko



sei orduko bidaia egin behar izan genuen autobusez, eta bidean traktore bat aurreratu genuen. Ja, ja!».

«Lehen elur gehiago botatzen zuen»

Elurteak handiagoak eta ugariagoak izaten ziren duela 50 urte. Blas Elcano mendizale sasoiatsuak atseginez aipatu ditu bere

Lizarra Mendizale Elkarteak 50 urte beteko ditu gaur. Elkarteak egun 426 kide ditu. Ezkerrean, Lizarrako Mendizale Elkartearen fundatzaileak, 1951n Jurramendin buzoia paratu zutenean. Behean, gailur anitz igo dituzten elkarteko kideak; oraindik sasoiko daude.

● EGUNKARIA



bizipenak: «Elurak dena estaltzen zuen, bideak, errepideak... neguak luzeak izaten ziren... Bidezidorretatik elurra urtzen zenean, orduan abiatzen ginen mendira eskiatzera. Jende ugari biltzen ginen Lezaun eta Lizarragan; kanpoko jendea ere etortzen zen, eta gero patatak txorizoarekin jaten genituen. Dantzaldia ere izaten zen, musika eta guzti. Eta eski txapelketak antolatu genituen Lizarran». 1953tik, elkarteak urtez urte Finalista Eguna ospatzen du; aurrenekoa Jurramendin egin zuten; 1962 urteaz geroztik, Larraizar mendian. Mendi hau elkartearen gunea da gaur egun, eta bertan aterpe txiki eta polit bat dute. Buzoiak ere barreiatu dituzte Estellerriko mendietan zehar.

Baina Lizarrako Elkarte, mendiarekiko zaletasuna hiritarrengan pizteaz gain, Ega ibaiak

zeharkatzen duen hirian sortzen ziren bertzelako talde eta mugimenduetan ere erabat inplikatu ziren. Gauzak horrela, dantza, txistu, abesti eta bertzelako kultur ekintzen aldeko apustu aipagarria egin du beti elkarteak. Halaber, euskararen hedapenaren aldeko eta Ikastolaren sorreraren aldeko ekimenak ere ugariak izan dira.

Gaur egun, Lizarrako Mendizale Elkarteak 426 kide ditu. Xabier Otamendi da egun elkartearen presidentea, eta horrelaxe ikusten du berak elkartearen egoera: «Jende gutxi dago elkartearen alde lan egiten duena. Talde txiki bat lan guztiez arduratzen da, eta jende gaztearen konpromiso handiagoa nahiko nuke. Lizarran mendiarekiko zaletasun handia egon da eta dago; beraz, elkarteak biziagoa behar du egun».

→ Kristina Berasain

Urteurreneko ekitaldiak



Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko ekitaldi ugari antolatu dituzte: hitzaldiak, mendi irteerak, ikastaroak eta abar. Denan den, bi ekitaldi nagusi izanen ditu aurten elkarteak. Ekainaren 3an urtero legez ospatuko den Finalista Eguna, eta datorren maiatzaren 4an eginen den ospakizuna. Egundik aurrera, elkartearen sortzaileei omenaldia eginen zaie arratseko 19:30ean Lizarralde kiroldegian. Bertan, elkartearen historiaren lekuko di-

ren argazki zaharrak jarriko dira. Erakusketak egun horretan zabalduko da, eta ikusgai izanen da maiatzaren 18a bitarte. Iraganak eta orainak bat eginen dute elkarte honen etorkizuna luzea izan dadin.

Bitartean, hainbat hitzaldi eta diapositiba emanaldi antolatu dute elkartekoek. Juanito Oiarzabal, Carlos Garcia, Carlos Suarez eta Andoni Areizaga, besteak beste, Lizarran izan dira, Mendizale Elkarteak gonbidatuta. Eta hitzaldi gehiago izanen dira

oraindik. Apirilaren 6an, Joseba Egibar Euskal Herriaren inguruan ariko da eta, azkenik, maiatzaren 11n L. Katarainek indioen inguruko hitzaldia emanen du.



Nafar Kronika

Gontzal Agote

Non da gizartea?

BATZUEK NAHIAGO DUTE GIZARTE ZIBILA esan; baina, zinez, hitz itsusia da eta, gainera, adituren batek esanaz du euskaraz guztiz desegokia dela. Hortaz, utz dezagun izenburua bere laburrean, maketatzailearen desesperaziorako. Ez gara gu aldatzen hasiko jaungoikoak eta lege zaharrek zizelkatu zuten hizkuntza. Sarrera etimologikoaren ondotik, gatozen harira. Askotan entzun ohi izan dugu herri honen gizartea bereziki aktiboa eta bizia dela. Agintean dauden politikariek, eta haiekin batera telebista esatariek, beste hitz bat erabiltzen dute, solidarioa alegia. Kritikotasun puntua ere ondokoetan baino zertxobait gorago omen dugu eta ez dut pentsatu nahi nola dabiltzan herri horietan. Horren folklorikoa den gure egoera sozio-politikoak honekin zerikusirik izanen duelakoan nago.

Soziologoek ez dakit zer esanen duten honen inguruan, beharbada halako ikerketek ez dira unibertsitate ofizialek eta fundazio jurasikoek diruz laguntzen duten horietakoak, hortaz ez dugu izanen horren inguruko liburukoterik. Bada ordea teoria bat osatzeko moduko lehenengo gogoeta. Nirea.

Hainbeste bihurtune eman ondoren maretzen hasia naiz. Itzul gaitezen hasierara, non dago gizartea zen galdera. Eta izaten segitzen du. Erantzunik ez dut ordea. Kontua da gizarte mugimenduaz horrenbeste hitz egiten den gure XXXXX honetan (poto egiteko zorian egon naiz) politikakeriak, eta honi estuki lotuta erakundekeriak, izugarri mugatzen duela ekinbide autonomoak. Eta okerrean da horretara ohitu egin garena.

Orain bai, zutabetxo honen mamira ari gara ailegaten (pena hau amaitzeaz dagoela izatea). Duela bi urte horren adibide garbia izan genuen, Lizarrarekin (ama, ama, zer da Lizarra?) eta ondorengo su-etenarekin sortutako itxaropena pixkanaka-pixkanaka gure begien aurrean nola usteltzen zen ikusi genuen eta ez ginen gai izan deus egiteko, goikoek zer esan, zer erabakitzen zuten zain.

Bitan harri berean eta berdinetan gaude orain. Euskararen kontra behin eta berriz kristorenak eta gu salbatuko gaituen manifa eta ekimenaren zain segitzen dugu, zerura begira, txapela salbatzailea noiz etorriko den zain. Non gara gu?

gure aukerak

MUSIKA

- **Tafalla:** Oskorri taldeak Uralana eskainiko du bihar, 19:30ean, Ereta frontoian.
- **Irunberri:** La Polla, Leihotikan eta El Trono de Judas taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, 22:30ean, frontoian.

BERTSOLARIAK

- **Bera:** Nafarroako Txapelketa-konkordia finala egiten dute igandean, 16:30ean, Ezteraga frontoian. Parte-hartzaileak: Amets Arzallus, Xabier Silveira, Estitxu Arozena, Juan Mari Lopez, Bittor Elizagoien, Joxe Juan Zubieta Etxabe eta Iñigo Olaetxea.

KORRIKA KULTURALA

- **Zizur Nagusia:** Ipuin kontalaria. Gaur, 18:30ean, kultur etxeko liburutegian.
- **Agoitz:** AEKren aldeko jaialdia. Gaur, 21:00etan, frontoian. Fanfarrea, txistulariak, dantzariak, txalaparta, abesbatza ttikia, bideo erakustaldia...
- **Urdiain:** Txan magoa. Bihar, 16:00etan, udaletxean.
- **Olazti:** Bihar, 17:00etan, herri kirolak haurrendako. Gauean Korrikaren aldeko afaria soinu joleekin. Eta, ondoren, Alitosis taldearen kontzertua gaztetxean.
- **Altsasu:** Bihar arratsaldean, haurrentzako ginkana; 17:00etan Galdesakan txapelketa Gure Etxean; eta 21:00etan, su eta tan-tan ikuskizuna Foruen plazan.
- **Obanos:** Bihar, 17:00etan, Korrika ttikia herriko kaleetatik; 17:15ean, herri kirolak haurrendako; 18:00etan, txokolate jatea pilotalekuan; 19:00etan, Korrikaren bideoa Elizbarrutiko zineman; 19:15ean, Obanosko toponimiari buruzko mintzaldia,

Mikel Belasko eta Jabier Bikuñaren eskutik.

- **Gares:** Igandean, 17:00etan, Korrika ttikia herriko kaleetatik; 17:45ean, Zubia dantza taldea, Sakagorri fanfarrea eta laiak Mena plazan; 18:00etan, herri kirolak haurrendako; 19:00etan, askaria.
- **Zizur Nagusia:** Talo tailerra. Asteartean, 20:00etan, Garrazta elkartean, 500 pezetaren truke.
- **Zizur Nagusia:** Nikaragua historiaren gainetik hitzaldi eta bideo emanaldia, Medicus Mundiren eskutik. Ostegunean, 20:00etan, euskaltegian.

ZINEMA

- **Iruñea:** Karrikirik antolatutako zinemaldiaren baitan, gaur, Gu bai gu (Lo mejor de cada casa) filma eta Hego haizea, ero haizea film laburra pantailaratuko dituzte, 20:00etan, Golem Baiona zinematokietan.

LEHIAKETAK

- **Zangoza:** Zangoza Hiria II. Pop-rock Lehiaketan martxoaren bukatu baino lehen eman behar da izena eta bidali behar da maketa. Infor-

mazio gehiago, kultur etxean.

- **Iruñea:** Alegria de Iruña peñak euskarazko lehen komiki lehiaketa antolatu du. Gaia: sanferminetan gertatua. Lanek bertikalak izan behar dute eta, gehienez, Din A3koak. Irabazleak 25.000 pezeta patrikaratuko ditu, eta euskararik jatorrena darabilenak, 15.000. Lanak apirilaren 3a baino lehen entregatu behar dira peñan bertan (Jauruta, 61-63, 31001), edota posta elektronikoz bidali (alegriai@euskalerra.org). Informazio gehiago 948-227115 telefonoan.

• JOXE LACALLE



Atrezzoak

Iragan asteburuan Cacao izenburuko antzezlanaren eskaini zuten Iruñeko Gaiarre antzokian. Musikala zen, etorkinen inguruan. Eta, ohi denez, antzezlanoen atrezzoak antzokian sartu aitzin hainbat minutuz izan zen kale gorrian, zain. Orduantxe hartua da irudia. Eta leku horretatik gertu, Amaia kalean, Ezker Abertzaleko ildorik ezagunenaren buruaren kontrako pintadak agertu ziren iragan astean ere. Ezker Abertzalearen atrezzoak egunotan kalean izan da, zain. Etxeko trasteak kanpora atera dituzte, ondotik pasatzen ziren guzien ikusgarri. Eta sartzeko zain dira oraindik, kale gorrian. Ez dakigu antzezlanaren musikala izanen ote den, baina kakaorik, behintzat, ez da faltako.